



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2015EKO URTARRILAREN 21EAN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

Jesus Peñagarikano Labaka

Oihane Sarasola Nosellas

Mikel Agirrezabala Ezkurdia

Ibarran 2015eko urtarrilaren 21ean udaletxeko bilera-aretoan, eguandiko ordu batak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave Egintzaren buru Jesus Peñagarikano Labaka alkate alkate izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

1.2014KO ABENDUAREN 16KO AKTAREN ONARPENA

2014ko abenduaren 16an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2014ko abenduaren 16an eginiko Gobernu batzarraren akta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA:

2.- 2014 KO ABENDUAREN 17AN BURUTURIKO PERTSONAL BATZORDEAREN AKTAREN INGURUKO ERABAKIAK ONARTU.

2.1 2015EKO LAN-EGUTEGIEN ONARPENA

Aurkeztu dira 2015eko ondorengo lan-egutegiak:

- Arantxa Pikabea eta Brigada
- Kulturako 3 langileena
- Bulego Orokorrak, Hirigintza, Ingurumena, Gizarte Zerbitzuak, Idazkaritza, Euskara eta Kontuhartzailtza

Falta den bakarra Jon Ijurkorena da oporretan dagoelako.

2015eko urtarrilak 12an, 53. erregistro zenbakiarekin Kultur etxeko langileek idatzi bat aurkezten dute eta lan-egutegi berri bat aurkezten diote Tokiko Gobernu Batzordeari, honek onar dezan.

2014ko abenduaren 17an eginiko Pertsonal Batzordearen irizpena kontuan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA: onartzea Arantxa Pikabea, Brigada , Bulego Orokorrak, Hirigintza, Ingurumen, Gizarte Zerbitzuak, Idazkaritza, Euskara eta Kontuhartzailtzak aurkezturiko lan-egutegia.

BIGARRENGOA: Ez onartzea Kulturako 3 langileek 2015eko urtarrilak 12an aurkeztu zuten lan-egutegia eta ondorioz, aurretik aurkezturik zuten lan-egutegia onartzen zaie.

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Kulturako 3 langileei.

2.2 ORDUTEGIA ETA MARKAKETAK

Langileek proposatu zuten aukera izatea 20 edo 10 minutuko atsedendia dagokien langileei, atsedeen honetaz ez baliatu eta 20 edo 10 minutu lehenago irtetea lanetik.

Gobernu Batzordeko kideek egoki ikusten dute, azken finean herritarrak udaletxera ez dira lan ordutegiko azken orduetan etortzen eta ondorioz, herritarrekiko zerbitzua ez litzateke goizeko 11:00etan etengo (denbora gehiago galtzen da 11:00etan lanaldia mozten den egunetan). Arreta zerbitzu egokiagoa emango du Udalak



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

langileek proposatzen dutena onartuz (atsedenaren ordutegia arreta zerbitzurako egokiago delako). Beste Udal batzuetan ere hau aplikatzen da eta esperientzia positiboa dela uste dute.

2015eko urtarrilak 12an Nekane Azurmendi, Maria Isabel Nazabal eta Juan Jose Alustiza langileek idatzi bat aurkeztu zuten Ibarra Udalean. Kultur Etxeko langileek kafea hartzeko eskubidea aldarrikatzen zuten. Idazkaritzak honen inguruan egindako 1/2015 txosten juridikoa aurkezten dio Tokiko Gobernu Batzordeari. Bertan honakoa ondorioztatzen da: *Ibarra Udalean (indarrean dagoen barne arautegiari, 2008ko maiatzaren 27an ospaturiko Udalbatzuan onartua, so eginez) barne atsedenerako eskubidea sortzen da lanaldian 6 ordu edo gehiago jarraian egiten duten langileen artean. Lanaldi murriztua (ez zatitua) duten langileen artean ere eskubide hau sortzen da baina 20 minutuko atsedenaldirako eskubidea izan ordez 10 minutu izango dituzte. Aldiz, arautegiak (lan arloko legediak ere horrela aurrikusten du) ez du lanaldi zatikatuetan eskubide honen sorrera aurrikusten. Ondorioz, 6 ordu baino gehiago **jarraian** lan egitea baldintza "sine qua non" edo ezinbestekoa izango da atsedenerako eskubidea sortzeko. Bestalde, barne araudiak espreski aurrikusten du 20 edo 10 minutu horiek egiaz egindako lan gisa zenbatuko direla langilea lantokitik irten den edo bertan geratu den kontuan izan gabe. Azkenik, barne arautegian ere argi adierazten da zerbitzuaren premiak kontuan izanik hartuko direla minutu horiek eta behar bezala justifikaturik dagoenean etenaldirako eskubidea baliatzeko ordutegia aldatzeko abalmena dagoela. Bestalde, jenderaen arretarako sailetan, etenaldia ez da jende gehien etortzen den orduetan egingo (honela agertzen da 12. artikuluan).*

2014ko abenduaren 17an eginiko Pertsonal Batzordearen irizpena eta Idazkariaren 1/2015 txostena kontuan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Onartzea langileek proposaturikoa, hau da, 20 edo 10 minutuko atsedenaldea dagokien langileei, atsedena honetaz ez baliatu eta 20 edo 10 minutu lehenago irtetea lanetik.

Horretarako urtarrilean Pertsonaleko administrariari jakinarazi beharko diote, eta behin aukera eginda, ezin izango da urtean zehar aldaketarik egin. Era berean, ez bada urtarrilean aukera hau egiten, ezin izango da urtean zehar aldatu.

BIGARRENA: Ez onartzea 2015eko urtarrilak 12an Nekane Azurmendi, Maria Isabel Nazabal eta Juan Jose Alustiza langileek aurkezturiko idatzian egiten duten eskaera; non, Kultur Etxeko langileek kafea hartzeko eskubidea aldarrikatzen duten. Idazkaritzaren 1/2015 txostenak esandakoari so eginez, langile hauek ez dute 6 ordu jarraian egiten eta ondorioz ez da eskubide hau sortzen beraien alde (lan atsedenaldea izateko eskubidea alegia).

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Pertsonal Sailari eta Kultur Etxeko langileei.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

HIRUGARRENA:

3.- MARIA ISABEL GARBIZU ALDUCIN ANDREAREN ESKAERA

2015eko urtarrilaren 13an, M^a Isabel Garbizu Alducin andreak eskaera egiten du Francisca Alducin Betelu andrea I-1-10 kolunbarioan sartzeko (egun J-1-08 nitxoan dagoena).

Ondorengoa ikusirik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Onartzea M^a Isabel Garbizu Alducin andreak eginiko eskaera eta ondorioz Francisca Alducin Betelu andrea I-1-10 kolunbarioan sartzea(egun J-1-08 nitxoan dagoena).

LAUGARRENA:

4.- UZTURPE IKASTOLAREN LIZENTZIA ESKAERA

Iker Gibelaldi Otermin jn.ak Uzturpe ikastolaren izenean lizentzia eskatu du Uzturpe ikastolako frontoian argiteria instalazioa egiteko eta horretarako eskabidea aurkeztu du soilik.

Frontoi berriko lizentzia 224/2014 lizentzia bidez eman zitzaion eta bertan jasotzen zen baldintza hau: eraikin berriko indar eta argiteria aurreikuspena sartzeko eta obra handiko baldintza orokorrak betetzeko.

Obrak amaitu ondoren oraindik ez du obra amaierako dokumentazioa aurkeztu eta duela gutxi ikusi da lizentzia eman aurretik egin duela instalazioa.

Instalazioa egin duen enpresa Electricidad Ibarra izan da.

Urtarrilaren 12an lantaldeko elektrikari eta udal arkitektoa eraikinean izan ziren eta egindako instalazioa egiaztatu zuen.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ikusi da udal arkitektoak 2015eko urtarrilaren 12an eginiko txostena non honakoa adierazten den: “ argiteria egokitzeko lanak frontoiaren exekuzio lanetan sartu behar dira”.

Ikusi da frontoi berriko argiteria ikastolako instalazioaren zirkuitu berrizat jo dela. Eta tentsio baxuko araudi elektronikoaren arabera ez da aldaketa garrantzitsua instalazioaren osotasunean eta ezta kanpoko argiteria ere. Kontuan izanda 5Kw azpiko potentzia, ez da beharrezkoa proiektu bat aurkeztea, nahikoa da memoria teknikoa eta eraikin berriko obra amaierako dokumentazioa.

Halere, lan horiek egitea aurretik memoria teknikoa aurkeztu gabe eta idatzizko baimena izan gabe, hirigintza arloko arau-hauste arintzat jotzen da, 2/2006 Lurzoru eta Hirigintzari buruzko legearen 225 art.aren arabera.

Egindako ikuskatzearen arabera, jarduketa legeztagarria da eta aipaturiko legearen 221 art.aren arabera jokatu da, hau da, egoera legeztatuko beharrezko den dokumentazioa aurkeztu beharko du hilabeteko epean.

Ikusi da udal arkitektoak eginiko txostena eta oharra.

Idazkariak argi uzten du lizentzia ematea onartu gabe lanak egitea arau-hauste arintzat jotzen dela eta espediente zehatzaile bat ireki beharko litzatekeela.

Ondorengoa ikusirik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA: eskatzea ondoko agiriok ekartzeko hilabeteko epean, egindako instalazioa legeztatu ahal izateko:

Instalazioaren diseinuaren memoria teknikoa eta baimendutako instalatzailearen ziurtagiria Tentsio Baxuko Erregelamendu Elektronikoaren ITC BT 04aren arabera. Instalazioaren likidazioa.

Hori egin ezean zigor espediente irekiko zaio.

Horrez gain, ondokoa aurkeztu beharko du:

Obra amaierako dokumentazioa, lizentzia emateko baldintza orokorretan jasotakoari jarraituz.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- a) Aldaketaren bat sartu bada, obraren behin betiko egoeraren planoak.
- b) Obra zuzendariaren ziurtagiria non adieraziko den obrak onartutakoaren arabera egin direla eta ezarritako baldintzak betez.
- c) Obra amaierako ziurtagiria, eskumeneko teknikariak sinatuta eta elkargoak ikus-
onetsita. Horrekin batera erantsiko da obraren amaierako likidazioa.

BIGARRENA: Erabaki honen berri eman Uzturpe Ikastolari.

BOSGARRENA
GALDERA ETA ESKAERAK

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, goiburuko eguneko ordubiak direnean, lehendakariak bilera amaitutzat ematen du eta nik, bitarteko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut, bertan esandako eta erabakitako guztiaren berri jasoz.